



Andoni Egaña bertsolariarekin hasi zen Nafarroako sagardo garaia. argazkiak: jagoba masede/ak / argazkiak: jagoba masede/ak

Bertsolari arteko sagardoa

Lesakako Linddurrenborda sagardotegian hasi dute aurtengo Nafarroako sagardo garaia

Asier Azpilikueta

Aurtengo sasoiako lehen sagardoa Xalbador izeneko upel batetik hartu zuen Andoni Egaña bertsolariak. Eta, «Sagardo berria» oihukatu beharrean, bertsoa bota zuen. Laburtzearren, guztiondako adina sagardoa bazegoela

erran zuen, eta sagardoa nafarren dako umorearen iturri izan dadin opa egin zuen. Ondoren, ilara luzea sortu zen Xalbador upelaren aitzinean. Linddurrenborda sagardotegiko nagusia Juan Mari Lopez da. Lesakara ezkonduko bertsozale oartzuak. Batzuek upelari mendien izenak edo zenbakiak jartzen

dizkieten moduan, Lopezek bertsolari handien izenak jarri dizkie: Mitxelena, Uztapide, Txirrita, Xalbador, Lazkao-txiki. Upel artean, egungo bertsolariak ibili ziren atzo: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Manolo Arzoena, Bittor Elizagolien eta Estitxu Fernandez, bertzeak bertze.



Txuleta ederrak egiten dituzte Linddurrenborda sagardotegian.



Kirikoketa erakustaldia egin zuten gazteak.

Agurra egin eta gero, doako bazkaria bildutako makina bat kazetarirekin hitz egitea egokitu zitzaion Egañari. Lopezek Euskal Herriko bertsolari txapeldun gisa aurkeztu zuen Egaña. Baina Nafarroako zenbait hedabidetako kazetariendako oso urrutiko kontua da hori, eta, elkarrizketa egin zitolarik, nortasun agiria osatzeko moduko galderak egin zizkieten: bigarren abizena zela zuten, nongoa zen, zenbat urte zituen...

Asteazkenean, Astigarran izan zen Egaña. Atzo eguerdian, Lesakan. Eta, gauean, Azpeitira joan behar zuen. «Polita da», erran zuen trago artean. «Gustatzen zait sagardotegiko harreman mola, mahaitik zutitu beharra upelera joateko. Jatetxean, beti berberak dituzu inguruan. Baina, sagardotegian, edozeinek in harremana izateko aukera daukazu».

Sagardoa edaten gustura zebilen Egaña atzo. Baina, berak aitortu zenez, bertsolarako nahilago du ardo beltza. «Ni hotz samarra naiz eta ardoarekin lortzen dut arrankatzea. Baina, beno, sagardoa ere gustatzen zait. Alkohola daraman dena hartzen dut». Sagardotegietan edo jatetxeetan bertsoak berdín-berdín botatzen ahal direla erran zuen Egañak. «Mitoak dio garai batean sagardotegiak zirela bertsolaritzaren habia. Baina gaur egun ez da hori gertatzen. Hasteko, euskaldunak

eta erdaldunak biltzen direlako sagardotegian».

Atzo, bederen, Linddurrenborda bertsolarien habia izan zen. Baze goen kirolariaren bat —Marta Mendia, Jorge Nagore, Ritxar Tirapu...—, eta politikariaren bat ere bai —Javier Etxarte Nafarroako Gobernuko Nekazaritza kontseilaria—, baina bertsolariena zen talderik jendetsuena. Hala ere, lerro ok idatzeko orduan, oraindik ez zuten bertso bakar ere bota, Egañaren agurra izan ezik.

Eta aurtengo sagardoa? «Goxoa», Juan Mari Lopezek hitzetan. «Baina oraindik egin gabe dago. Hamabost egun barru, beste zapo re bat izanen du. Orain, goxo antzean dago: Baina edateko, ona».

Nafarroako Sagardo Egileen Elkartek sei sagardotegi biltzen ditu; Lesakakoa, Lekarozkoa, Lekunberrikoa, Aldazkoa eta Beruetea biak. Lopezek duela sei urte muntatu zuen berea. Hasieran, kanpotik ekartzen zuen sagardoa, baina gero berahasi zen egiten. Nafarroako behien haragia erabiltzen du, eta ederrak ateratzen zaizkio txuletoiak. Andreak tortillak eta gainetarakoak egiten ditu, eta horiek ere ez dira txarrak. Eta Lopezek desioa, betikoa; aurtengo denboraldia aurrekoaren parekoa izatea, eta sagardotegietara joateko ohitura bere hartan mantentzea, baina Nafarroan ere sagardotegiak badirela kontuan hartuz.